# Oiartzun

## Oiartzungo turismoa



Egileak:

Talde gorria (Anini)

LH 5A

Ikastolen elkartea

# Oiartzun gozatu

DITI



## Aurkezpena

Kaixo, lagunak! Diti naiz.

Ni jakin-mina duena naiz, betidanik izan dut gauza berriak ezagutzeko eta gozatzeko gogo bizia.

Welcome!

Egun zoragarria pasa nahi al duzu?

Â¡Ven y disfruta de una esperiencia inolvidablle!

## Presentación

Nahi al duzue egun zoragarri bat pasatu nire herriaren altxorrak ezagutuz?

# Oiartzun begirada batean




## Kokapena

Oiartzun, Gipuzkoako ipar-ekialdean kokatuta dago. Oiartzunek Errenteria, Lezo, Irun eta Nafarroa ditu mugakide.Â

## Erliebe-elementuak

Bertatik igarotzen den ibaia, Oiartzun Ibaia da. Oiartzunen mendi ugari daude: Bianditz,Aiako Harria...

## Bestelako informazioa

Oiartzunen hainbat pertsona famatu daude adibidez: Xabier Lete, Alaitz eta Maider...Oiartzungo ohitura bat Ihoteak dira, Otsailaren 18an sorginak, intxixuak eta basandreak herrira jaisten dira. Etorri eta gozatu!!

# ZER IKUSI
# (Interesgune naturalak)

## Urkabe



Urkabeko flora hau da: haritza, gaztainondoa, pinua, gereziondoa, iratzea, sasia,maraguria... Horretaz gain, faunari dagokionez:kattagorria, azeria,erbinudea, untxia, xagua... Bestalde, hegaztien artean:txantxangorria, txepetxa, xoxoa, birigarroa eta ontza.

Plazatik tontorrera Legarreko maldatik gora harrizko familia ezberdinen hainbat gurutze daude. Tontorrean ere badago gurutze bat harrizko eskailera batzuekin. Mendiak (234m) ditu.

Â

# ZER IKUSI
# (Interesgune naturalak)

## Pilotasoro



Juan Ugarte (1914/08/21) Pilotasoroko bordan bizi zen eta 1950. urtean pilotan jolasten hasi zen bertan. Honi lotuta dago Pilotasoro izena.

1980ko erdialdean, artzainek aisialdian bote luzea jokatzen zutela uste da. Pilota-soro edo soropil izeneko eremu lauetan jolasten zen. Batez ere, asteburuetan eta festa eguneko arratsaldetan jolasten zuten.

# ZER IKUSI
# (Interesgune artistikoak)

## Beloaga gaztelua



Beloagaren inguruan egiten denÂ lehenengo aipamendua 1200. urtekoa da, baina ez dakiguÂ noiz eraiki zen ziur. Oiartzungo udalerrian kokaturiko Beloaga gaztelua, Gipuzkoan kontserbatzen den Erdi Aroko jatorria duen gaztelu garrantzitsuenetarikoa da. Arkaleko harkaitzetan kokatuta dago, lurretik 272m-ra.

Gaztelu hau, 1200. urtean Gaztelako Alfonso VII. Erregeak Nafarroako Erresumari konkistaturiko gazteluen artean ageri da.

# ZER IKUSI
# (Interesgune artistikoak)

## Done Eztebe eliza



Done Eztebe eliza Oiartzunen (Gipuzkoan) kokatuta dago, Elizalde auzoan hain zuzen ere. 1629 eta 1643 urteen arteanÂ eraiki zuten. Eraikuntzak ezaugarri gotikoa eta erromanikoak ditu.

Done Eztebe elizaren ezaugarriak hauek dira: nabe bakarrekoa eta gurutzadunarik gabekoa da. Elizaren barnean erretaula nagusia nabarmentzen da.

Gerren ondorioz, elizaren zati bat erre egin zen eta hainbatÂ suteen ondorioz berrikuntza batzuk egin zituzten. Erre baino lehen estilo gotikoa zuen elizak, eta berrikuntzen ondren estiloÂ erromanikoa gehitu zioten erretako alde horri.

# Zirkuituaren mapa




## Legenda

| | | | |
|---|---|---|---|
| Norabidea | | Erreferentzia-puntua | |
| Abiapuntua | | Interesguneak | |
| Helmuga | | | |

# Zirkuituaren deskribapena

## Zure zirkuituaren lehen urratsa

Oiartzungo plazatik Elizara joateko, ez da erreferentzi punturik erabili.

### Deskribapena

Plazatik abiatu, Donibane Kalea hartu eta jarraitu aurrera. Ondoren, ezkerretara biratu Eliza arte. Hau da lehenengo interesgunea nahi baduzue bisitatu.

# Zirkuituaren deskribapena

## Zure zirkuituaren bigarren urratsa

1 → 2

Elizatik Urkabera joateko,Elizatik Urkabera, jarri da erreferentzia puntua.

### Deskribapena

Jarraitu aurrera Donibane Kaletik, gurutzatu kalea eta Legarre Kalea hartu. Jarraitu gora Legarre Kaletik eta ezkerrera dagoen Frailen bidetik sartu. Han biratu eskubira eta hartu jarraian dagoen kalea. Gero sartu Urkabe Bidera. Jarraitu zuzen bidegurutzea arte eta hor biratu eskubira eta jarraitu aurrera, Urkabeko gurutzea aurkitu arte.

## Zure zirkuituaren hirugarren urratsa

2 → 3

Urkabetik Beloagara joateko, Gurutzeko biribilgunean jarri da erreferentzi puntu bat,eta bestea Frailen Bideko bidegurutzean.

### Deskribapena

**Urkabeko gurutzean gaudela lehengoko bidea egin behar duzu, Urkabeko Bidea bukatu arte. Hor aurrera jarraitu Fraileen Bideraino, lehenago etorri garen bidea eskubitara utziz. Jarraitu aurrera Gurutze Bidea arte eta Gurutze Bidetik jarraitu aurrera birilgunearekin aurkitu arte.**

# Zirkuituaren deskribapena

## Zure zirkuituaren laugarren urratsa

3 → 4

Urkabetik Beloagara joateko, Gurutzeko biribilgunean jarri da erreferentzi puntu bat,eta bestea Frailen Bideko bidegurutzean.

### Deskribapena

**Biribilgunean hirugarren irteera hartu eta jarraitu aurrera Arkaleko bidetik. Aurrera jarraitu Arkale Zahar hoteleraino eta han mendira sartu behar zara, eta bidea jarraitu. Itzuli etorri zaren tokitik Gurutzeko rotondaraino. Hartu Gi-2134 autobidea,Pilotasorora iritsi arte.**

## Zure zirkuituaren bostgarren urratsa

4 →

Laugarren interesgunetik helmugara joateko,ez da erreferentzi punturik erabili.

### Deskribapena

Itzuli autobidea jarraituz Oiartzungo plazara. Iritsi zara helmugara!

# Bisitarientzako gomendioak

Ekar itzazu mendiko botak ibilbiderako.

Ekarri kamera bat argazkiak ateratzeko.

Cuando vengas a hacer el circuito trae una bolsa para recoger la basura.

Trae un paraguas por si llueve.

Dress comfortably for your tour.

Animals eat their own food, so please do not feed them with your food.